

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIK

## Abeltzaintza jardueretarako 317.000 euroko bi diru-laguntzen deialdiak onartu dira

*Bata abere hazleen elkarteei dago zuzendua, eta bestea osasun defentsa programetarako*

Ostirala, 2019.eko martxoak 22

Nafarroako Gobernuak, Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazio Departamentuaren bitartez, abeltzaintza jardueretarako bi diru-laguntza onartu ditu, horretarako 317.000 euro bideratuz. Zehazki, lehendabizikoa [abere hazleen elkarteei](#) dago zuzendua, eta bestea [osasun defentsa protrametarako](#).

Lehendabiziko deialdiak, 250.000 euroko aurrekontua du eta Nafarroako Foru Komunitateko Landa Garapenerako 2014-2020ko Programaren barneko "Abeltzaintzako baliabide genetikoak kontserbatzea" izeneko 10.2 azpineurriaren babespean ez dauden Nafarroako abere hazleen elkarteei daude zuzenduak. Laguntza hauen helburua da elkarte hauek errendimendu kontrolen programetan eta arrazen genetika hobekuntzan egiten duten lana babestea, hala abeltzaintza ustiatzeki bideragarritasun ekonomikoa hobetu dezaten.

Bigarrenengoak, 67.500 euroko aurrekontua du, eta abeltzaintzaren osasun defentsarako elkarteei daude zuzenduak, abereen gaixotasunak prebenitu eta desagerrarazteko eta haien aurka borrokatzeko osasun programak egiteko. Laguntza hauen helburua da abeltzainen elkarte hauei babesa ematea ustiatzeki borondatezko osasun planak eta derrigorrezkoak diren kanpainez gain ekintza gehigarriak egin ditzaten. Osasun plan hauek berdinak dira taldeko abeltzain guztientzako eta abeltzainek egiten dituzte

Ignacio Gil, Landa Garapen, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendari orokorrak zehaztutako bi deialdien ebazpenak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu dira ostegun honetan, hilak 21. Eskatera egiteko epea datorren apirilaren 23an amaituko da.